



VILLABONAKO UDALAREN ETA MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Villabona, 2024ko ekainaren 20a

BILDURIK

Batetik, BEATRIZ UNZUE ESNAOLA andrea, Villabonako Alkate andrea.

Bestetik, ARANTZAZU URKIZU OIARTZABAL andrea, adinduna. Ondorio hauetako helbidea: Dr. Huizi kalea, 15-1 20140 ANDOAIN; eta Nortasun Agiria: 15981982H, MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA elkartearen ordezkaria.

Ni, MIKEL VON WICHMANN PAVLETICH jauna, Villabonako Udaleko Idazkaria, aurrean nagoela.

PARTE-HARTZAILEAK

BEATRIZ UNZUE ESNAOLA, Villabonako Udalaren izenean eta ordezkaritzan (Erreboteko Plaza z/g; IFK: P2008100F), Alkate gisa esku hartu du, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 29an hartutako erabakiaren bidez eman zaio egintza honetarako ahalmena.

ARANTZAZU URKIZU OIARTZABAL andrea, MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA elkartearen izenean eta ordezkari gisa. MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan inskribaturik dago, bere helbidea DOKTOR HUIZI KALEA 15, 1 20140 ANDOAIN da, eta bere IFK G20438073. ARANTZAZU URKIZU OIARTZABAL andreak Elkartearen ordezkari gisa hartu du parte, eta, ondorioz, bera da Elkartearen legezko ordezkaria, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko Legearen 15. artikulua arabera.

Bi alderdiek dokumentu hau egiteko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta xede horrekin honako hau

ADIERAZTEN DUTE

1. MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA Elkarte (aurrerantzean Elkarte), bere Estatutuen arabera, xedetzat duela Manuel Larramendi Kultur Bazkuna 1992ko azaroaren 5ean sortu zen Andoain, Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna eta Larraulgo euskaltzale batzuen eskutik eta honako helburuak ditu: Euskara hizkuntza suspertu, osatu eta hedatzea, euskal kultura indartu eta arnasberritzea Manuel Larramendi euskaltzale eta euskalaria ezagutaraztea.
2. Elkarteak ondorengo jarduerak eraman nahi dituela aurrera Villabonako udalerrian:
 - 111 Akademiaren sari-banaketa azpiegitura (oholtza, audio tresneria...).
 - Musika ikuskizuna.
 - Aurkezlea(k): ikuskizun gisakoa.
 - Ekitaldiaren bideo-grabaketa eta ekoizpena.
 - Gonbidapenak eta iragarkiak.
 - Sariaren ondorengo otamena.
 - Partaideak bideratzeko logistika (seinaleak).
3. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikulua arabera udalerrii dagozkien eskumenen artean, honako hauek daude:



- Kirola, kirol-instalazioak eta aisialdirako instalazioak sustatzea.
- Kultura eta kultura-ekipamenduak sustatzea.
- Euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzea.
- Hiri-ingurumena
- Gizarte-beharrizaneko egoeren ebaluazioa eta informazioa, eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako berehalako arreta

Horrekina batera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 16. artikulua adierazten du udalerriek jarduerak, zerbitzuak edo prestazioak garatu ahal izango dituztela, baldin eta jardura, zerbitzu edo prestazio horiek, transferitutako edo eskuordetutako eskumen propioen eremuaren barruan egon gabe, herritarren bizi-kalitatea hobetzea dakarren eta komunitatearen edozein premia edo interes asetzen duen edozein jardura-eremu antolatu eta kudeatzera bideratuta badaude.

4. Elkartek irabazi asmorik ez duenez, jardura egitean ezingo du diru-irabazirik izan.
5. Jarduerak/ek ez du/te kontratu izaerarik bere edukia ez delako Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak araututako kontratuetan sartzen. Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 6.2 artikulua bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu *“Administrazioak zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako lankidetzak hitzarmenak, berariazko erregulazio arauen arabera egindakoak hain zuzen, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan”*.

Agertutako alderdiek interes berbera dutenez, lankidetzak-hitzaurre hau sinatu dute, ondoko klausula hauei jarraituz:

KLAUSULAK

1. Xedea

Lankidetzak hitzaurre honen xedea da Villabonako Udalaren eta Elkarteen arteko lankidetzarako baldintzak ezartzea.

2. Hitzarmenaren xede diren jarduerak

Elkartea eta Villabonako Udalaren arteko elkarlana, nagusiki jardura hauetan zehaztuko da:

- 111 Akademiaren sari-banaketa azpiegitura (oholtza, audio tresneria...).
- Musika ikuskizuna.
- Aurkezlea(k): ikuskizun gisakoa.
- Ekitaldiaren bideo-grabaketa eta ekoizpena.
- Gonbidapenak eta iragarkiak.
- Sariaren ondorengo otamena.
- Partaideak bideratzeko logistika (seinaleak).

Jarduerak ondorengo baldintzetan eramango dira aurrera:

- a) Jarduerak antolatzeke ardurak osoa euren sustatzailearena da, kasu honetan Elkartearena, eta hori antolatzean, aplikagarri den araudian aurreikusitako baldintza guztiak eta beharrezko baimen guztiak (Villabonako Udalaren eta bestelako erakundeak - Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, etab.) betetzeko betebeharra du.
- b) Ekitaldi horien antolaketa dakartzen lan eta gestioak osotasunean Elkarteen esku geratzeko dira.
- c) Elkartek bere emanaldiak iragartzeko erabiltzen dituen euskarrietan Villabonako Udalaren aipamena egongo da.
- d) Elkarteen lankidetzak Villabonako Udaleko Euskara sailak ikuskatuko du.

3. Dirulaguntza



Villabonako Udalak diruz lagunduko du Elkarteak hitzarmen honetan zehaztutako jarduerak garatzeko. Hitzarmena sinatzen den urtean, dirulaguntzaren zenbatekoa 3.000,00 €-koa izango da 0400-481-335-70-01 aurrekontu partidaren kargura. Hurrengo ekitaldietan dirulaguntza emateko baldintza izango da Villabonako Udaleko dirulaguntzen plan estrategikoan jasota egotea, eta udal-aurrekontuetan dirulaguntza izenduna esleitzea eta dirulaguntza emateko baldintzak betetzea.

Elkarteak aurreko urtean jasotako dirulaguntza aldatzeko eskaera egin nahi izango balu, hurrengo urteko jardueren eta diru-sarrera/gastuen aurreikuspena aurkeztu beharko du irailaren 15a baino lehen (Udalak horretarako prestatutako inprimakien bidez).

4. Ordainketa mota

Udalak konpromisoa hartzen du onartutako dirulaguntzaren % 90a gehienez ere hilabeteko epean ordaintzeko, hitzarmen hau sinatzen denetik zenbatzen hasita, hitzarmenaren indarraldiko lehen urtean.

Hurrengo urteetarako, % 90a ordaintzeko, udal-aurrekontuak behin betiko onartuta egon beharko dira. Behin aurrekontuak onartuta, Udalak ordainketa egingo du urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen.

Gainerako % 10a erakunde onuradunak emandako funtsen erabilera hitzarmenaren termino eta baldintzen arabera behar bezala justifikatu ondoren eta Udalak justifikazioa balioztatu ondoren ordainduko da, gehienez ere bi hilabeteko epean justifikazioa jasotzen den egunetik zenbatzen hasita. Elkarteak dirulaguntzaren justifikazioa **otsailaren 15a baino lehen** aurkeztu beharko du

Justifikazio-memoriak honako hauek jaso beharko ditu: dirulaguntzaren xede diren jardueren deskribapen zehatza, lortutako estaldura (artatutako pertsona kopurua, emakumeak, gizonak, adina, erabilitako hizkuntza...) eta lortutako emaitzen ebaluazioa.

Memoriak jarduera osoaren balantze ekonomikoa (gastuak eta diru-sarrerak) jasoko ditu, eta diruz lagundutako jardueren gastu guztiaren egiaztagiriak ere, horien zerrenda xehatuarekin batera.

Gastuen egiaztagiriak: fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten edo eraginkortasun administratiboa duten froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuak, diruz lagundutako jarduera gauzatzearen ondoriozko gastuei eta sarrerei dagozkienak.

Faktura edo dokumentu baliogabe oro ez da kontuan hartuko jasotako dirulaguntza justifikatzeko orduan.

Dirulaguntza hau, xede bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderikiko bateragarria izango da, aipatu dirulaguntzen arautegi erregulatzailerak ezar lezakeena kaltetu gabe. Dena den, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere diruz lagundutako jardueraren kostua gaititu, ez berak bakarrik ezta beste dirulaguntza, sarrera edo baliabideri gehituta ere.

5. Zeharkako gaiak

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legean xedatutakoa bete beharko da, bereziki 4. artikuluan (printzipio orokorrak betetzeari buruzkoa), 17. artikuluan (estatistikak eta azterlanak egokitzeari buruzkoa), 19. artikuluan (edozein euskarritan hizkera sexista ez erabiltzeari buruzkoa) eta 24. artikuluan (zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatuari buruzkoa).

Erabilitako dokumentazio guztian (programa aurkezteko idazkiak, testuak, galdetegia, txostenak, etab.) hizkera ez-sexistaren irizpideak aplikatu beharko dira.

Halaber, Villabonako Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean onartuta dituen irizpideak bete beharko dira.

6. Hizkuntza irizpideak

Udalak beste entitate publiko edota pribatu batzuekin hitzarmenak sinatu ahal izango ditu, euskararen



ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko.

Udalak pertsona fisiko eta juridikoekin sinatzen dituzten hitzarmenak euskaraz idatziko dira.

Hitzarmenaren edukia nolakoa den, euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko hizkuntza klausulak sartuko dira.

Diruz lagundutako jarduerak berekin dakarrenean herritar-multzo zehaztugabe batekin zuzeneko harremana edukitzea, euskararen erabilera bermatuko da.

Diruz lagundutako jardueran komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, euskaraz egingo dira.

Dirulaguntza jasotzen duen ekintzatik eratorri daitekeen hitzaldi edo antzekoren bat antolatzen bada, euskaraz izango da, arrazoitutako salbuespenak izan ezik, —hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea—hizkuntza eskubideak errespetatu daitezke.

Haur eta gazteentzako egiten diren jarduerak euskaraz egingo dira beti.

Haur eta gazteekin aritzen diren hezitzaileei Udalak formazio soziolinguistikoa emango die, eta Udalaren irizpideak jakinaraziko zaizkie.

7. Villabonako tokiko merkataritzari laguntzeko gomendioa

Dirulaguntza honen erakunde onuradunari gomendatzen zaio bere jarduerak gauzatzeko beharrezkoak dituen ondasun eta zerbitzuen erosketak, ahal dela, Villabonako establezimenduetan egitea. Ekintza honen helburua tokiko merkataritza hazten eta indartzen laguntzea da, komunitatearen garapen ekonomiko eta sozialean lagunduz.

8. Jarraipen batzordea

Hitzarmenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena egiteko batzorde bat eratuko da.

Batzorde horrek hitzarmenaren inguruan sor daitezkeen interpretazio eta betetze arazoak konponduko ditu, eta hitzartutako jarduera bakoitza eta alderdiek hartutako gainerako betebeharrak betetzen diren ebaluatuko du.

9. Auziak

Hitzarmen hau garatzean alderdien artean auziren bat sortuz gero, aurreko klausulan ezarritakoa eragozpen izan gabe, administrazioarekiko auzien jurisdikzio bidez ebaztuko dira.

10. Ez-betetzeak

Elkarteak ez baditu betetzen lankidetzaren hitzarmen honetan bere gain hartutako obligazio eta konpromisoak, itzuli egin beharko du jasotako dirua, dena edo zati bat, edo ez zaizkio dagozkion zenbatekoak ordainduko. Itzuli beharrekoa ez-betetzearen larritasunaren arabera izango da.

Hitzarmen honetan ezarritakoa ez betetzeak, edo jasotako kopuruak dirulaguntza ematea eragin zuten helburuak ez diren beste batzuk betetzeko erabiltzeak berekin ekarri ahal izango du, kasuan kasuko espedienteak izapidetu ondoren, emandako dirulaguntza galtzea, eta jasotako zenbatekoak gehi dagozkien legezko interesak Villabonako Udalarari itzuli behar izatea, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Legearen 41. eta 42. artikuluek eta horren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91., 92. eta 93. artikuluek ezarritakoari kalterik egin gabe.

11. Indarraldia

Hitzarmen honen indarraldia 4 urtekoa izango da, sinatzen denetik kontatzen hasita. Edozein unetan, paragrafo honetan aurreikusitako epea amaitu baino lehen, hitzarmeneko alderdiek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urtez, edo hitzarmena iraungitzea.

Eta bi alderdiak ados daudela erakusteko, hitzarmen hau sinatu dute, bi aletan, goiburuan



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

adierazitako egunean eta tokian.

VILLABONAKO UDALEKO ALKATEAK,

ELKARTEAREN ORDEZKARIAK,

Izpta.: BEATRIZ UNZUE ESNAOLA

Izpta.: ARANTZAZU URKIZU OIARTZABAL

VILLABONAKO UDALEKO
IDAZKARIAK

Izpta.: MIKEL VON WICHMANN PAVLETICH

